

Kilometroetako aurkezpen ekitaldia egingo dute etzi, Belabieta kiroldegian

Ostiralean hasi eta urriaren 2ra bitarte Ibarra ospatuko da Kilometroak jaia; 19:00etan hasiko da etziko ekitaldia, eta gonbidapenak beharko dira; larunbatean denda zabalduko dute // **6**



Usue Sukia, Maider Lopetegi eta Josu Ozaita, ekitaldiaren berri ematen. I. SAIZAR

11 proiektuen artean aukeratzeko unea dute billabonatarrek

Datorren urtean udalak gauzatzeko lehenesten duten proiektua bozkatu ahalko dute etzira arte telematikoki, eta larunbatean eta igandean Gurean; igandean jakinaraziko dute emaitza // **4**

«Motibazioa eta esfortzuarekin emaitzak lortu daitezke»

INTZA ELIZALDE ESKALATZAILEA

14 urte ditu tolosarrak, eta hainbatetan Espainiako lehiaketetan podiumera igotzea lortu du, 16 urtez azpikoen mailan // **7**

Biodibertsitate Gunea sortu dute Tolosan, naturazale guztientzat

Biodibertsitate gaiei buruzko irteerak, tailerrak, hitzaldiak edota ikastaroak egingo dituzte; Herritarren Zientzia Sarea ere osatu nahi dute // **5**



Iker Urruzola, Leire Otaegi eta Ana Olazabal, enplegunea aurkezten atzo. JOSU ARTUTXA

Enplegunea topaketan 63 kontratazio sustatuko dituzte

Tolosaldeko Lan Merkatuaren Topaketaren zazpigarren edizioa abenduaren 3an egingo dute Lehiberri zentroan; Lanbidek diruz lagunduko dituen enplegu gehienak sei hilabetekoak izango dira // **2**



Usabal Ind., 12· 20400 Tolosa
943 69 75 79

www.funerariaoria.com

Abenduaren 3an egingo dute Enplegunea topaketa, Lehiberrin

Ia 400.000 euro banatu eta 63 kontratazio sustatuko dituzte eskualdeko enpresen artean, Tolosaldeko Lan Merkatuaren Topaketaren zazpigarren edizioan



Leire Otaegi Tolosaldea Garatzeneko teknikaria, Ana Olazabal Lanbideko enplegu teknikaria eta Iker Urruzola Tolosaldea Garatzeneko lehendakaria, Enplegunea aurkezten, atzo. JOSU ARTUTXA

Josu Artutxa Dorronsoro

Bueltan da Enplegunea topaketa. Abenduaren 3an ospatuko da Tolosaldeko Lan Merkatuaren Topaketaren zazpigarren edizioa, Tolosaldeko Lehiberri Zentroan. Bi oinarri izan ohi ditu Enplegunea topaketak. Batetik, kontratazioak sustatzeko eskualdeko enpresei Lanbideren bitartez ematen zaizkien diru-laguntzak; bestetik, enpresen eta lan eskatzaileen aurrez aurreko elkarrizketak.

Orain arteko edizioekin alderatuta, bada aldatuta bat: nahiz eta baremazioan kontratazio berriak lehenetsi diren, aurtan, lehen aldiz, lanpostu berrien sorrera sustatzeko urte osoan zehar egindako kontratazioak ere diruz lagunduko dituzte. «Aurtan, ia 400.000 euro bideratu ditu eskualdera Lanbideak, eta gehienez ere 63 kontrataziok jasoko dute diru-laguntza», adierazi du Iker Urruzola Tolosaldea Garatzen garapen agentziako lehendakaria.

Diruz lagunduko dituzten lan-

postu gehienek sei hilabeteko iraupena izango dute, eta lanaldi osokoak izango dira. «Aipatutako 63 postu horietatik %40 emakumezkoek beteko dituzte», gaineratu du Leire Otaegi Tolosaldea Garatzeneko enplegu saileko sustapen teknikariak.

Laguntza horiek jasotzeko, baina, enpresek ezinbestekoa izango dute zenbait baldintza betetzea, hala nola, bere zentroren bat Tolosaldean kokatuta egotea eta eskualdean erroldatutako pertsonak kontratatzea. Topaketan parte hartzeko interesa duten langabetuek, berriz, Lanbiden izena emanda egon beharko dute, hau da, langabezian egon beharko dira.

Tolosaldea Garatzenen aldetik, kalifikazio ezberdinak izango dira enpresentzat. Hainbat irizpide bete beharko dira puntuak lortzeko; horri buruzko informazioa eskuragarri dago *Tolosaldeagaratzen.eus* webgunean. «2021eko kontratazio guztiak kontuan izango ditugunez, puntuazio nabarmena emango diegu deialdi hau onartu osteko

epean kontratuak egin dituzten enpresei. Kontratazioa sustatu behar dugu, eskualdeko nortasunari garrantzia emanez», esan du Otaegik.

Gaur argitaratu dute lan-eskaintza berrien zerrenda osoa Tolosaldea Garatzenen webgunean: *Tolosaldeagaratzen.eus*. Gaurtik aurrera, beraz, lan bila dabilen eskualdeko herritarrek izena emateko aukera dute bertan. «Enpresa bakoitzak bilatzen duen profilerak hobekien egokitzen diren hautagaiak aukeratu ondoren, horiek elkarrizketatzeko aukera izango du abenduaren 3an, Lehiberrin», azaldu du Urruzolak. Enpresentzat lan-eskaintzak argitaratzeko edo diru-laguntza eskaerak egiteko epea atzo amaitzen bazen ere, kreditua agortu bitarte egiten diren eskaerak ere onartuko dituzte.

ENPLEGUA BERRESKURATZEN

Osasun krisiak iaz eta aurtan ekonomian eragindako ondorioak nabarmenak izan dira. Bada, Urruzolaren hitzetan, «enplegua

ez zen salbuespena izan». Orain arteko joera positiboa «eten» egin duela, eta ziurgabetasun, itxiera eta ABEE-ak (Aldi Batera-ko Enplegu-erregulazioko Espedienteak) tarteko, lan merkatuaren egoera «erabat aldatu» duela nabarmendu du. Hala ere, egoerak hobera egin ahala, enpleguari dagokionez, Tolosaldea pandemia hasi aurreko datuak berreskuratzen hasia dela aitortu du, «zenbaitetan, baita hobetzerari iritsi ere».

Hala erakusten dute Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuak eta Tolosaldea Garatzenek helarazitako urriko datuek. Aurtan, %12 jaitsi da langabezia Tolosaldean: 1.934 langabetu daude une honetan, urte hasieran baino 262 gutxiago. Eskualdeko populazio aktiboaren %8,2 dago lanik gabe. 2020 urte amaieran, %9,3 zegoen lanik gabe; 2018an, berriz, %9,4. Hain zuzen, Gipuzkoako (%8,8) eta EAEko (%11) tasak hobetzen ditu Tolosaldeak.

Azken urtean, gainera, 198 lanpostu berri sortu dituzte: 243 afiliazio eratu dituzte erregimen

orokorrean; autonomoetan, berriz, 45 galdu. Guztira, 17.386 afiliatu daude. Lan-kontratuaren ere gorakada izan da: %14 igo dira. «Horien artean, kontratu mugagabeen kopurua txikia da oraindik, %11, baina aipagarria da izan duten igoera nabarmena», esan du lehendakariak.

Tolosaldean lan bila dabilen profilaria begiratzuz gero, are azpimarragarriagoa da argazkia: %58 emakumea da; gainera, «igotzen» ari dela nabarmendu du Urruzolak. «Adinari dagokionez, langabeen ia erdia 45 urtetik gorakoak dira. Jatorriari erreparatuta, espainiar estatuan jaiotakoa da lan bilatzaileen %77».

Azkenik, ia bi herenak (%64) kalifikazio apaleko lanpostuak bilatzen ditu, nahitaezko ikasketak soilik eskatzen dituenak. Bestetik, erdia baino gehiago (%54), luzaroan dago lanik egin gabe. «Langabe horien azken lanpostuak aztertzen hasita, %63 zerbitzuetan ari zen lanean, %15 industriar, %5 eraikuntzan eta %4 nekazaritzan. Gainerakoak (%13) ez zuen lanik».



1 LA PERLA

Bi lagunentzako Forman jartzeko Talaso Zirkuitua

Kontxako pasealekua z/g
DONOSTIA
943 45 88 56
la-perla.net
Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 51



harpidedun izateak badu saria zozketa

2 DONOSTIAKO AQUARIUMA

Bi lagunentzako bina sarrera

aquariumss.com
Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 52



3 ALAKRANA DE ECHEBASTAR

Produktu sorta

Erroxape kaia - 48370
BERMEO
946 18 65 00
alakrana.com
Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 53



Parte hartzeko deitu 902-82 02 40 telefono zenbakira edo sartu www.ataria.eus webgunean • Aste honetako asteazken, ostegun eta ostiral goizean. Saridunak larunbatean argitaratuko ditugu.

Amarozko haurrentzat ekintzak dinamizatzeko plataforma aurkeztu dute

Guk Amaroztaurrak izena eman diote; eragile ezberdinek haurrentzat antolatutako ekintzetarako egindako esfortzuari «izena emateko garaia» dela adierazi dute auzoko gurasoek

Josu Artutxa Dorronsoro
Tolosa

Amarotz auzoak plataforma berri bat du: Guk Amaroztaurrak. Haurren Eskubideen Nazioarteko Eguna dela eta, auzoko haurrentzat ekintzak dinamizatzeko dituen talde berria aurkeztu zuten larunbatean. Aurkezpenarekin batera, jolas ezberdinetan aritzeko aukera izan zuten auzoko umeek. Azken hamarkadetan, haurrentzako ekintzetan jarri izan dute fokua auzotarrek. «Ez da zerbait berria, baina esfortzu ugari batzen ditu. Zor bat dugu beraiekin eta ez diegu huts egingo», adierazi zuen May Gorostiaga auzoko gurasoak.

ERAGILEEN EKARPENA

Auzoko zein inguruko eragile ezberdinek urteak daramatzate bertako haurrentzako ekimenak antolatzen. «Eskerrak eman nahi dizkiegu, eta gurekin batera gauzak antolatzen jarraitzeko gonbidapena luzatu nahi diegu», esan zuen. Aurrerantzean, beraz, plataforma berriak lagunduko du lan horretan. «Bada garaia esfortzu horri izena emateko», gaineratu zuen.

Amarozko haurrak pandemia garaian «ezinbesteko jarrera» izaten ari direla eta helduentzako «eredu» bihurtu direla nabarmendu zuen Gorostiagak: «Ahaztezina izan zen iazko apirilaren 27a. Itxialditik irten ginean, haurren aldeko apaingarri



Pasa den larunbatean egin zuten aurkezpena, Amaroitzen bertan. J.A.D.

EGITARAUA

Azaroak 28, igandea. Oartzunera txango gidatua. Hojarasca kultur elkartearen eskutik, Oihanlekuko crolech-a eta Aiako Harriak Natur Parkea bisitatuko dituzte. Izen-emateen inguruko informazioa sare sozialetan.

Abenduak 4, larunbata. *Birakabareta* 21kuskizuna, Topic-en. Zikloia jaialdiaren barruan, hainbat taldek parte hartuko dute ekitaldian: Pailaztana Junior (Amarozko antzerki taldeko haurrak), Pailaztana Clown Taldea (Amarozko clown taldea), Tolosako Numen dantza eskola eta Gorka Pereira, Imanol Suso eta Pablo Caceres (Zirkozaurre).

Gabonak. Datak zehazteke. Haurrentzako bikuskizun: Kattalin Salaberry eta Jokin Irungarayren *Elekaren ipuin sorta* eta Nerea Ariznabarreren eta Mariano Hurtadoren *Bertoko eta urrutiko ipuinak*.

eta pankartez bete ziren auzoko balkoiak. Argi dugu oso ezberdinak garela, baina oraindik argiago dugu gure haurrentzako onena nahi dugula eta merezi duten auzoa eskaini behar diegula».

Amarotz auzoko gurasoek ez dute zalantzarik egiten: «Bertako haurra bazara, auzoa maite baduzu, ekintzetan parte hartzen baduzu edo jolastera edo senideak bisitatzen etortzen bazara, Amaroztaurra zara. Edozein haur izan daiteke Amaroztaurra», adierazi zuen Laida Altuna gurasoak. Orain hiru aste, Gau Beltza ospatu zuten auzoan. «Arrakastatsua izan zen, adin guztietako auzotarrak inplikatu zirelako. Orduan ohartu ginen zerbait berria sortzen ari zela auzoan, eta elkarrekin edozer egiteko gai izan gaitezkeela». Datoren asteetarako ere, egitarau zabala prestatu dute.

Bertsoa eta zirkua uztartuko dituzte 'Gure Bertso Zirkua' ikuskizunean

Abenduaren 11n goizean hurrei zuzendutako saioa izango da eta arratsaldean helduei begirakoa; Gure Zirkua, Harituz eta Galtzaundi dira sustatzaileak

Erredakzioa Tolosa

Bertsoa eta Zirkua uztartuko dituen saio berezia antolatu dute elkarlanean Harituz Bertsozale Elkartuneak, Gure Zirkua eta Galtzaundi Euskara Taldeak. Publiko desberdinari bideratutako bi emanaldik osatuko dute ikuskizuna, eta ahozko inprobisazioa eta zirkuko diziplina desberdinak uztartuko dituzte bertsolariak eta Gure Zirkuko artistek.

Ikuskizun berezian, beraz, bertsoak eta zirkua elkartuko dituzte, eta haurrentzat zein helduentzat bideratutako saio banak osatuko dute eguneko egitaraua. Bertsolarien inprobisazio eta errimatze gaitasunaz gozatu ahalko da, zirkuko arte diziplina desberdinekin nahastuz.

Abenduaren 11n izango dira emanaldiak, Tolosako San Esteban auzoan kokatutako Gure Zirkuko karpan. 12:00etan hurrei eta gaztetxoenei begirako ikuskizuna eskainiko dute Gure Zirkuko artistek eta Tolosaldeko hiru bertsolariak: Oihana Iguaranek, Unai Mendizabalek eta Haritz Mujikak. Haurrentzat eta gaztetxoentzat bideratutako saioa izango da, bai gaiak eta bai emanaldiaren iraupena haietara egokituko baitira. Gai-jartzaile lanean Iker Iriarte eta Imanol Artola ariko dira.

Helduenei zuzendutako ema-

naldiaren txanda 18:00etan izango da. Maddalen Arzallus, Andoni Egaña, Alaia Martin eta Julio Soto ariko dira kantuan, Gure Zirkuko artistekin batera. Arratsaldean ere Iker Iriarte eta Imanol Artola arduratuko dira bertsolariari nahiz zirkuko artistei gaiak jarri, eta bertsoak eta zirkua uztartzeko bideratze lana egiteaz.

Emanaldietarako sarrerak presentzialki soilik eskuratu ahalko dira. Azaroaren 27an jarriko dira salgai, 10:00etatik 12:00etara Galtzaundi Euskara Taldearen Tolosako egoitzan eta Villabonako Subijana Etxean. Goizeko emanaldiko sarrerak 5 euroko prezioa dute eta pertsona bakoitzak, gehienez, bost sarrera eskuratu ahalko ditu. Arratsaldeko saiorako sarrerak, berriz, 13 euroko prezioa dute eta pertsona bakoitzak, gehienez, bi sarrera erosi ahalko ditu. Galtzaundikideek deskontua izango dute arratsaldeko saiorako eta 10 euroan bina sarrera eskuratzeko aukera izango dute.

IRAGARKI LABURRAK

Salgai

Txerriak. Apotea, zerramak eta 6 hilabete inguruko txerrikumeak salgai. Interesatuak deitu 607 668 603 (Joxe Kruz) zenbakira.

Sagarak. Bidania-Goiatzen eskuz bildutako errezil sagarra salgai (652 7187 51).



GABONETAN OPARITU BERTAKOA, OPARITU ATARIA

Oparitu urtebeteko Atariako harpidetza zuk nahi duzunari, eta jaso katilua edo koaderno doan

Atarikide digitala: 55€. Atarikide harpidea: 83€
(produktuak agortu arte)

Ataria

Egin zure erreserba abenduaren 22a baino lehen. 943 65 56 95 / atarikide@ataria.eus

Lagundu Atarikide sarea zabaltzen

**ZIRKUITU BIO-OSASUNGARRIA**

15.000 euro. Herriko adinekoek ariketa arinak egiteko gune bio-osasungarriak jartzea proposatu da. Zehazki, parkea, Kale Nagusian kokatuko da, Kale Berriko 2, 4 eta 6 zenbakien atzealdearen parean.

**TXERMIN AUZOA OINEZKOENTZAT**

60.000 euro. Eremua biziberritzea lortu nahi da proiektuarekin. Pertsonen joan-etorria erraztea eta adingabeen eta haien laguntzaileen segurtasuna hobetzea ekarriko du egokitzeak, ikastolako sarrera eta irteeretan.

**TXERMINGO APARKALEKU BERRIA**

320.000 euro. Bertako herritarrentzat aparkaleku faltaren arazoari konponbidea emateko egitasmoa da. Udalerriko erdiguneko ibilgailuen trafikoa arindu eta aparkalekuari kalitatezko alternatiba eskainiko dion proiektua.

Herri galdeketan 11 aukera zabalik

Amasar eta billabonatarrek telematikoki bozkatu ahal dute etzira arte udalaren web orrian; bozketa presentziala Gurea zinema aretoan egin ahal izango da larunbatean, egun osoz, eta igandean 15:00ak arte

Erredakzioa

2022an Amasa-Villabonako Udalak gauzatuko duen proiektua herritarrek erabakiko dute, herri galdeketan aukeran jarri dituzten 11 proiektuen artean. Azaroaren 26ra bitartean *Villabona.eus* webgunean bozkatu ahal izango dute herritarrek NAN zenbakia eta telefono zenbakia jarrita. Bozketa presentziala, azaroaren 26an, larunbata, 10:00etatik 20:00etara egingo dute

Gurea zine aretoko sarreran, eta igandean 10:00etatik 15:00etara.

Herritarrek gutxienez proiektu bati hiru puntu eman beharko dizkiote, alegia, gutxienez gehien gus-tatzen zaiena aukeratu beharko dute. Bigarrena eta hirugarrena markatzea hautazkoa izango da.

Botoen kontaketa igandean 15:00etan hasiko da eta Gurea zinema aretoan bertan egingo duten ekitaldi publikoan jarraitu ahal izango da. Puntu gehien jasoko di-

tuen proiektua gauzatzeko konpromisoa hartu du udalak. 400.000 euro gorde ditu horretarako.


Herritarren Parte Hartze batzorde berezian parte hartzen duten ordezkari politikoek deia luzatu diete herritarrei herri galdeketan parte hartzeko. Haien iritziz prozesua «mugarri garrantzitsua» izango da Amasa-Villabonako herritarrek ahalduztzeko eta udal politiketan herritarren hitza eta erabakia kontuan izateko.

**PARKE ESTALIA KIROLDEGI ATZEALDEAN**

100.000 euro. Ekonomikoki bideragarria eta materialei dagokionez iraunkorra izango den proiektua aurkeztu dute. Leku egoki batean kokatuta dagoen haur parke estaliaren beharrari erantzungo dio proiektuak.

**JOLASTUZ BIZIKLETAN IKASTEKO PARKEA**

93.643 euro. Herriko natura gunean kokatuta, adin ezberdineko herritarrek naturaz eta bizikletaz gozatzeko gunea izango da. Modu seguruan kirolaz gozatzeko bizikleta parke bat da.

**ETXEONDO PLAZAKO ZOLADURA KONPONTZEA**

90.000 euro. Plaza horretako zoruaren egoera txarrak (desnibelak, zuloak, arrakalak) putzuak eta uholdeak eragiten ditu garajeetan. Arazoa areagotu egingo da eta konponketa sakona behar du.

**KOMIZAR PARKE MEGALITIKOA**

25.785 euro. Parke megalitiko honen bidez antzinako monumentuak ezagutzera emango dira, hausnarketa eta hezikuntza sustatuz. Historiaurreko arbasoek egindako hainbat monumenturen erreplikak jarriko dira Komizar parkean.

**SKATE-PARK-A KIROLDEGIAREN ALBOAN**

277.000 euro. Diseinu propioa izango du, hormigoizkoa eta 763 metro karratuko eremua izango da. Zirkuituaren erabilera nagusia skatearena izango da, baina horrez gain edozein motatako patinete eta patinekin erabili ahal izango da.

**KALISTENIA PARKEA OTSABIKO PARKEAN**

25.000 euro. Otsabiko parkean kalisteniarako gune bat egitea proposatu dute. Egunetik egunera jarraitzaile gehiago erakartzen dituen kirol modalitatea da. Ohiko gimnasioen alternatiba dibertigarria bihurtu dira kalistenia parkeak.

**PANEL BERRIAK ERREBOTE PLAZAN**

25.000 euro. Aurretik Errebote plazaren birgaitzean errebotearen historiari buruzko panelak jarri ziren. Orain, lan horretan sakondu nahi dute panel berriak ezarri.

**PADELA, BOLATOKIA ETA MULTIEKINTZA**

396.590 euro. Hiru proiektu eraikin batera aurreikusten ditu egitasmoak: estalitako bi padel pista, bolatokia estaltzea, eta balio anitzeko espazio estali berri bat kirol eta kultur ekitaldiak egiteko.



Usue Sukia Zurutuza Uzturpeko zuzendaria, Maider Lopetegi Nieto Ikuskizun batzordeko kidea eta Josu Ozaita Azpiroz Kilometroetako koordinatzailea. I.S.A.

«Hitzetatik ekintzetara» pasako dira ostiralean

Kilometroak 2022ko aurkezpen ekitaldia egingo dute etzi, Ibarako Belabieta kiroldegian; larunbatean, berriz, denda zabalduko dute

Irati Saizar Artola

Ostiral honetan emango zaio hasiera urriaren 2a bitartean Ibarako ospatuko den Kilometroak jaia. Aurkezpen ekitaldia Belabieta kiroldegian izango da, 19:00etan, eta bertaratzeko gonbidapenak hartu beharko dira aurrez, *Kilometroak.eus* webgunean.

Orain arte, lanketa berezi bat egiten aritu dira, urtea nola antolatu eta zein ekintza egin irudikatze. Ideia asko jaso dituztela baieztatu du Josu Ozaita Azpiroz

Kilometroetako koordinatzaileak, eta Maider Lopetegi Nieto Ikuskizun batzordeko kideak esan du «hitzetatik ekintzetara» pasako direla ostiraleko aurkezpenarekin. «Ikastolako balio eta lerroak irudikatuko ditugu ekitaldi horretan eta herritik eta ikastolatik sortutako jaia izango da, irakasle, ikasle eta herriko jendeak parte hartuko duelako», azaldu du Lopetegik.

DENDAREN IREKIERA

Ostiralean aurkezpenarekin hasi eta orain arte egin dituzten dina-

miketan jasotako ideiak antolatzeari dagokiela orain esan du Usue Sukia Zurutuza Uzturpe ikastolako zuzendariak. Ekintzetako bat larunbatean abiatuko dute: Kilometroetako denda zabalduko dute. Euskal Herria kalearen hasieran egokitu dute lokala, lehen Comercial San Bartolome denda zegoen lekuan. Komertzio orduetan, astelehenetik larunbatera, goiz eta arratsalde izango da zabalik. Herritarrek ariko dira boluntario moduan dendan lanean.

Dendaz gain, irteerak egingo

dituzte herri ezberdinetara, Gipuzkoako ikastolekin elkarlanean. Eta buruan zuten beste ekintza bat atzeratu beharra tokatu zaiela esan dute. Abendu hasieran, *bertso afaria x7* izeneko ekintza egin nahi zuten, baina aurrerago egingo dute. Bertso afari hori zazpi elkarte ezberdinetan egingo dute, batetik, Ibarako hiru elkartetan, eta bestetik Uzturpeko ikasleen jatorria kontuan hartuta, ibarraldeko lau herritan: Belauntzan, Leaburu-Txarman, Elduainen eta Gaztelun.

Eta urtariletik aurrera, urria-

ren 2ko festa eguna diseinatzeko hasiko dira eta dei egin diete herritarrei batzordeetan parte hartzeko. Esan dutenez, momentuz, 150 herritarrek eman dute izena batzorde ezberdinetan.

LANKETA BEREZIA

Kilometroak 2022 Ibarako ospatuko da, urte guztiko festarekin. Hori horrela, Ozaitak esan du Ibarako ospakizun bat izatea nahi dutela, ikastolarena bakarrik izan beharrean. Kilometroak zer izango den erabakitze dinamika ezberdinak egin dituzte orain arte herrian, eta hortik atera dituzten lerroek presentzia izango dute urte guztian zehar.

Kilometroak berritzailea izatea nahi dutela dio koordinatzaileak, «berrikuntza Uzturpe ikastolako ikur bat ere badelako, metodologia ikuspegitik beti dutelako ezin negona metodologia berriak aplikatzeko».

Bestetik, bertako jantokia izango da presente egongo den gaia. «Ibarako ikastolan duela 25 urte erabaki zen bertako sukaldaria jartzea, janaria bertan prestatzeko». Kontatu du sukaldariak egunero egiten dituela erosketak herriko saltokietan, bertako ekonomia sustatuz. Beraz, Kilometroetan bertako jantoki hori islatu nahi dute, eta horretarako, gastronomiak garrantzia izango du. Alor horretan, piperra ere ez da faltako, eta herriko baratzeek ere izango dute protagonismoa.

Eta kulturartekotasunari begira ere jarriko dira, Ozaitaren arabera: «Jatorri ezberdinetako jendea dago ikastolan, aberatsa da hori, eta euskal kultura konpartitzeaz gain, beste kulturak ezagutu nahi ditugu».

Bide horretan, orain arte Txosna batzordea zena Gastronomia batzordea izango da aurrerantzean, eta lehen Giza baliabideen batzordea zena, Auzolan batzordea da egun.

Hilberriak eta urteurrenak

ataria jarrita
Urola Kostako
eta Goierriko
Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 63,5mm): 110 € • Harpidedunentzat 55 €
HANDIA (124mm X 63,5mm): 160 € • Harpidedunentzat 80 €
ESKERTZA (38mm X 63,5mm): 60 € • Harpidedunentzat 30€
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 11:30ak arte hartzen ditugu



ATARIA

«Garrantzitsuena dena eman duzunaren sentiazioa da»

INTZA ELIZALDE ESKALATZAILEA

Tolosar gazteak ez zuen espero aurten hainbat alditan podiumera igotzea Espainiako lehiaketetan; maila horretako txapelketak ikasteko aukera direla azaldu du

Imanol Garcia Landa Tolosa

Intza Elizalde eskalatzaile tolosarrak 14 urte besterik ez ditu, baina dagoeneko 16 urtez azpiko mailan Espainiako hainbat txapelketatan emaitza nabarmenak lortu ditu. Uztailean, Overall eskalada txapelketan hirugarren postua lortu zuen. Irailean, zailtasuneko kopako Bartzelonako proban ere hirugarren izan zen, eta urri bukaeran, Iruñeko Rocopolisen, abiaduran txapeldunorde, blokean laugarren eta zailtasunean seigarren izan zen.

Noiz hasi zinen eskalada egiten?

Gutxi gorabehera zortzi urterekin hasi nintzen Tolosako kiroldegiko rokodromoan. Denbora pasa bezala hartu nuen hasieran, kirol honetara lotu arte.

Eta lehiaketetan parte hartzen?

Uste dut nire lehen txapelketa hamar urterekin izan zela, Nafarroako Soka & Block-en.

Espainiako txapelketako emaitzez gain, aurten ze beste emaitza lortu dituzu?

Euskadiko txapelketan, 16 urtez azpikoan, bi modalitateetan lehiatu dut: sokan bigarren postua lortu nuen eta abiaduran lehenengoa. Adin horretan, Lizarako bloke txapelketan bigarren izan nintzen.

Zer suposatzen dute zuretzat Espainiako lehiaketetan lortutako emaitzak?

Niretzat Espainiako txapelketa bat izugarritzko aukera da ikasteko, hobetzeko eta baita disfrutatzeko ere. Emaitzak beti dute pisua, eta azkenean horrek ere asko motibatzen zaitu, baina nire ustez garrantzitsuena sentiazioa izaten da. Dena eman duzunaren sentiazioa. Espainiako txapelketetan maila handia dago, eta denboraldi hasieran esango balidate gerora lortuko nituen emaitzak, ez nuke sinistuko. Baina motibazioa eta esfortzuarekin lortu daiteke.

Non entrenatzen duzu?

Hasieran Tolosan entrenatzen nuen, baina azkenengo urte honetan Donostian. Tolosako kiroldegiko rokodromoaren instalazioak oso eskasak dira ongi entrenatzeko eta horregatik Donostiako The Factory Boulder rokodromoan entrenatzen dut. Tolosan 2005ean rokodromoa egin zenean, itxura polita zuen, baina ez praktikoa. Orain arteko urteetan Tolosan entrenatzen genuen hainbat gazte, orain Ordizia, Iruña, Oñati edo Donostiara goaz kalitatezko tokien bila. Zumardia, Oargi eta Alpino Uzturrek batera egin dute eskaera, eta ea udalak erantzuna ematen dion eta Tolosan fundamentuzko azpiegitura bat osatzen duen.

Zer klub edo taldekoa zara?

Tolosan geundenak lehiatzen hasi ginenean, Hatz10 taldea sortu genuen. Donostiara joan ginenetik, CVC Elkartea - The Factory Boulder taldeko partaide gara.

Nola izaten dira entrenamenduak?

Astelehenetik ostiralera, hiru aldiz dut entrenamendua, eta asteburu askotan beste egun bat egiten dut txapelketarik ez badut. Zailtasuneko denboraldian erresistentzia lantzen dugu, batzuetan sokarekin eskalatuz, eta besteetan trabesiak eginez. Blokeko denboraldian denetik lantzen dugu, kasu honetan The Factory-n instalazio nahikoa dugu hau ongi entrenatzeko. Abiaduran, ordea, pareta jakin batean eskalatzen denez, hau entrenatzeko Iruñeko Rocopolis rokodromora joan behar izaten dugu. Normalean urtean zehar gutxien entrenatzen dudana modalitatea abiadura izan ohi da, izan ere, txapelketak gutxitan izaten dira.

Zure taldean eskualdeko zein beste eskalatzaile daude?

Hatz10 taldean zazpi neska gara. Irati Zabala entrenatzailea, Oiarzungoa, Garazi Gurrutxaga irurarra, Iune Lahidalga zizurkildarra, Maddi Agirre ordiziarrak, Udane Mujika elduaindarra eta Ane Garcia donostiarrak.

Rokodromoan aritzeaz gain, gustatzen zaizu arrokan eskalatzea?

Askok gustatzen zait arrokan eskalatzea, nahiz eta, txapelketen ondorioz nahi bezain beste ez aritu. Hala ere, udara honetan arrokan ibili naiz gehien bat. Leku berriak ezagutu ditut eta gogotsu nago hainbat proiektu berri probatzeko. Espainiako txapelketak jada bukatu direnez, ea hartzen dudana tarte horientzako.

Bizkaia-Durango taldeak Eukene Larrarte fitxatu du

Txirrindulari tolosarrak 2022ko denboraldirako egin du hitzarmena, eta talde berriarekin hasteko gogotsu dago

Erredakzioa Tolosa

Eukene Larrarte txirrindulari tolosarra 2022 denboraldian Bizkaia-Durango taldean ariko da, Laboral Kutxa-Euskadi Fundazioa taldearen txirrindulari izan ostean.

Bere talde berriak azaldu duenez, Larrartek maila ona erakutsi du azken urteotan nazioarteko lasterketetan. 2021eko apirilean lehen hamar postuetan sartu zen Volta CV lasterketan (1.1 UCI). Errepideko jarduera pistarekin uztartzen du tolosarrak, eta

orain gutxi absolutu mailako pistako Munduko Txapelketan parte hartu du.

Larrartek azaldu duenez, «gogotsu» dago 2022ko denboraldia Bizkaia-Durangoarekin hasteko. «Nire helburu nagusia errepidean nazioarteko lasterketa eta itzuli gehiago egitea da, egutegi zabalago bat, nire ezaugarrietara moldatzen diren lasterketa gehiago egiteko aukera izanez. Honek guztiak nire pistako ambizioetan ere lagunduko dit, batik bat 2024ko Parisko Olinpiar Jokotara begira».

Tolosa CF-koen emaitza onak Espainiako Kros Txapelketan

Erredakzioa Tolosa

Tolosa CF Atletismo taldeko hemeziti atleta joan ziren asteburuan Sevillara (Espainia), klubean arteko Espainiako Kros Txapelketan parte hartzera. Emaitza onak lortu zituzten atletek, eta guztietan nabarmentzekoa da 18 urtez azpiko neskek lortutako bosgarren postu bikaina.

Guztira lau talde joan ziren Tolosa CF-tik, eta «esperientzia bikaina» bizitu zutela adierazi dute klubetik. Beste hiru taldeek ondoko emaitzak lortu zituzten: 16 urtez azpiko neskek 20. postuan sailkatu ziren, 16 urtez azpiko mutilak 24. postuan eta 18 urtez azpiko mutilak 32. postuan.

Bestalde, Maria Lasa irurarrak Playas de Castellon taldearekin parte hartu zuen ere txapelketan, 23 urtez azpiko mailan. Bere proban hamargarren postua lortu zuen Lasak, 19.36ko denbora eginez, eta irabazlearengandik minutu eta sei segundora helmugaratuz. Klubean sailkapenean lehenengo postua lortu zuten Lasak eta bere taldekideek.

Bigarren postua lortu dute emakumeek 4x4ko sokatira txapelketan

Erredakzioa Ibarra

Larunbatean jokatu zen 250 kiloko 4x4 modalitateko emakumezkoen Euskal Herriko Txapelketa eta bigarren postua eskuratu zuten Ibarra taldekoek. Beti Gazte taldeak eraman zuen garaipena, baina oso zail jarri zizkieten lanak ibartarrek.

Izan ere, lehia oso borrokatua izan zen. Zortzi taldek parte hartu zuten txapelketan, eta guztiek guztien kontra tira egin zuten. Ibarra eta Beti Gazte taldeek azkeneko tiraldia euren artekoa jokatu behar izan zuten, bakoitzak aurreko guztiak irabazita zituztela. Bada, azken tiraldi horretan bakoitzak tiraldi erdia irabazi zuen, eta berriro beste tiraldi bat jokatu behar izan zuten. Horretan ere berdinketa egin zuten, eta azken tiraldi erdia jokatu behar izan zuten, eta hor Beti Gaztek irabazi zuen.

Hurrengo txapelketa asteburu honetan izango dute ibartarrek, eta bertan 4x4ko talde mistoak parte hartuko du. Urtarrilean hasiko dira zortziko modalitatean.



ASTEAZKENA, 2021EKO AZAROAK 24
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeka Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizalete
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661 678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetaldea: 687 410 022.
anoetaldea@ataria.eus
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezero arreta zerbitzua: **943 30 43 46**



Ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Baiarriain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Golatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



ASTEAZKENA 24

AGENDA

Deialdiak

Amasa-Villabona. Gure Eskuren Gailurra zain dugubatzar irekia, 19:00etan.
Amezket. Goiener-eko Eider Murgoitio eta Itsaso Irastorza, 18:30ean.
Ibarra. Auzoz auzo bilerak. *Nola ikusten dugu auzoa?* Euskal Herria kaleko 52-54-56-58-60-62-63-64-65-69-73-75-81-83 eta 85. Kultur etxean, 19:00etan.
Larraul. Bidean liburu aurkezpena, Koldo Rabadan Izagirrerekin, kultur gunean, 18:30ean.
Tolosa. *Renta basica incondicional y pensiones dignas*, hitzaldia, kultur etxean, 19:00etan.
Zizurkil. Guretzako guinea. Jatorri anitzeko emakumeen bilgune, kultur etxean, 10:00etan.

Antzerkia

Tolosa. Titirijai: *Alas negras*, Topic-en, 22:00etan.

Ikus-entzunezkoak

Alkiza. *Volar* dokumentala eta solasaldia Bertha Gaztelumendirekin, Fagus Alkizan, 18:00etan.
Amasa-Villabona. *Aupa Pou, bizitzari sokaz lotuta*, dokumentala, Gurean, 20:00etan.
Anoeta. A25: *Zapatistas, cronica de una rebellion* dokumentalaren proiektzioa, gaztetxean, 19:00etan.
Tolosa. *The asistant* filma, Leidorren, 19:00etan.

Kontzertuak

Alegia. Xexili ospakizuna. Loatzo musika eskolako ikasleen emanaldia, udaletxeko arkupeetan, 18:30ean.
Tolosa. Iñar Sastreren *Pianoarekin jolasean* kontzertua, Frontonen, 19:00etan.

Erakusketak

Amasa-Villabona. Herri galdeketa-rako proiektuak, Gurean.
Anoeta. *La busqueda: mujeres guatemaltecas que reclaman justicia*, liburutegian.
Tolosa. Mikel Remak-en *Ezin dena maite*, GKO galerin.

Tolosa. *Paperezko antzerkia*, Topic-en.
Tolosa. *Binilo diskoak eta txotxongi-loak*, Topic-en.
Tolosa. *Planeta lorategia. Planeta infernua*, Aranburun.
Tolosa. *Adar lotuak*, Aranburun.

ATARIA IRRATIA

09:00. Pasahitza. Magazina.
15:00. Desafioa. Herri kirolak.
16:00. Zebraidea. Magazina.
20:00. (H)ari Naizela. Bertsolaritza.

28 KANALA

08:00. 1, 2, 3 hemen da Miru!
11:00. Musika zuzenean.
11:30. Gaurkoan Tolosaldeko.
17:30. Gaurkoan Tolosaldeko.
22:00. Lehen lerroan.

FARMAZIAK

Gaur

TOLOSA. Egunekoa. E. Bengoetxea. Kale Nagusia, 7. 943 67 06 48.
TOLOSA. Gauekoa. L. Azpiroz. Larra-mendikalea, 6. 943 67 5118.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA

Gaur. Goizean oraindik euri zaparradaren bat edo beste izango dugu. Goiz erditik ilu-nabarrera arte ateri eutsiko dio eta une batzuetan ostarte batzuk zabalduko dira. Azken orduetan zerua estali eta euritara joko du. Haize al-dakorra izango dugu, mendebaldeko ukituarekin eta tenperatura ez da 10-11 gradutik pasako.

Bihar. Eguraldi makurra. Egun osoan zerua oso estalita agertuko da eta euria egingo du. Euria egun osoz egingo du eta tarteka gogotik botako du, batez ere, goizean. Haizeak ipar/ipar-mendebaldetik bizi joko du eta tenperatura jaitsi egingo da, 9-10 graduan joz goia. Elurra 1.000 metrotan kokatuko da.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esan-en eta iritzien erantzukizunik.

BABESTUTAKO EDUKIA



Lizarraga harategiko arduradun berriak dira Jose Enrique Centeno (ezkerrean) eta Juan Ramon Lizarraga (erdian). I.S.A.

Eskuz aldatuta, martxan da Lizarraga harategia

Anoetako Juanjo harategia jabez aldatu da eta Juan Ramon Lizarraga eta Jose Enrique Centeno dira arduradun berriak; ostiralean zabaldu zuten eta «pozik» daude izandako harreragatik

Urte mordo bat zabalik izan ostean, abuztuan itxi zuten Anoetako Juanjo harategia, eta pasa den ostiralean zabaldu zituen berriro ateak, nagusi berriein. Leitzako Juan Ramon Lizarraga eta Jose Enrique Centeno dira arduradun berriak eta aurrerantzean, Lizarraga izena hartuko du Anoetako herriko plazako bigarren zenbakian dagoen harategiak.

Lizarraga harategiak Leitzan du jatorria, 110 urte inguru atzera eginda. Hirugarren belaunaldikoa da Juan Ramon Lizarraga, eta laugarren belaunaldiari eutsiko dio Jose Enrique Centenok. Izan ere, 90 urtez Leitzako plazan aritu dira haragia saltzen eta azken 15 urteak Leitzako Eroski barruan egin dituzte, bertako harategian. Jatetxea duen landa ostatu baten jabe ere badira Leitzan, Musunzar ostatuarena zehazki, eta horrez gain, sukalde bat dute, kozinatutako jakiak prestatzeko.

Harategi batek eskaintzen duen betiko aukeratik harago, prestatutako jakien eskaintza zabaldu dute Lizarragan. Esaterako, hanburgesetan kolore eta mota

ezberdinekoak dituzte, haragi eta osagai ezberdinekin egindakoak: oilaskoa ziazerba freskoarekin, oilaskoa hutsik, indioilarra pikilloekin, txerria onddoekin, oilaskoa curry eta mostazarekin, txekorrarena eta txekorra Idiazabal gaztarekin.

Leitzan duten sukaldean prestatzen dituzte jakiak, gero Anoetara eramateko, eta luzea da zerrenda: broxetak, hegala, haragi bolak, lasagna, txapiroak, tripakiak, behi masaila saltsan, krocketak, san jakoboak, petxugak besamelarekin edota arrozesa, beste gauza askoren artean.

Oilasko zein txerri saltxitxak ere bertan egiten dituzte eta egiten duten txistorra onenen artean lehiatutakoa da. 2013an, esaterako, Euskal Herriko txapelketan 3. saria lortu zuten Ordizian. Lizarragak azaldu duenez, txistorra Basatxerri haragiarekin egiten dute, eta «ez du kontserbagarririk ez deus, naturala da».

BERTAKOAREN ALDE

Bertako produktuari «garrantzi handia» ematen diote, eta horren

adierazle da harategian dituzten haragi zein produktuen jatorria. Txekorraren kasuan, Aniztik, Baztandik ekartzen dute eta beti emeak hiltzen dituzte; txerri normalaz gain, Basatxerri saltzen dute; oilaskoak ere baserrikoak dira, eta esaterako, Aranburu arrautzak saltzen dituzte.

Odolki eta mondejuak Goierritik ekartzen dituzte: Olanoren odolkia eros daiteke eta Debaren mondejua. Gazta aukera ere zabaldu dute, Euskal Herri osoan aurki daitezke, Urepeletik hasi, Irati, Idiazabal, Mahala eta Oresakoa adibidez. Harategiko apalak ere beteta dituzte, kontserbako produktu, pasta, txokolate, edari eta beste hainbat gauzekin.

IREKIERAREKIN GUSTURA

Anoetan izan duten harrerarekin «pozik» dagoela esan du Lizarragak. «Ea gai garen jendea kontentut mantentzeko», gehitu du.

Astelehenetik ostiralera goiz eta arratsalde irekitzen dute, 08:30etik 13:30era eta 16:30etik 19:30era. Larunbatetan, berri, 08:00etatik 13:30era.